



OIANBELTZA

LAÑEKO IDAZLE AUNDIARI

*Mendlak mendia bear ez,
Gizonak gizona bai.*

Beste zenbait adiskide gartsuei uzten diotet menditzar ta goituetako zer-nolak esateko arloa, mendiaren edefa goratu ta edatzea.

¡Mintzo bedi Espinosa Etxebefia ausarta! Igo, jetxi, ikusmenez alda, otzez egon, eguzkitan kiskali, jari afizkoan bizia eriotza urbil ikusirik; noiz nai neka, ufena atsedan artu aizearen giroaz gozaturik. Au guzia da mendigoizaletasuna.

Nere gaurko solasa, ordea, mendiari buruz baño, geiago da gizonezkoak mendian utzi dituan ufatz, lantegi, efi, etxe toki-izen oitura ta abar aztertzeraz atxikia.

Azaletik, arinki bederik bi efialde aldeatzeko ustea dakart. Europañak biak. *Schwarzwald* Alemani'koa ta *Oianbeltza*, au da Irati baso ta inguruko lufaldeak Euskal-Efia'n; Alduide ospatsua, Auritz, Aezkoa; Orbaizeta bere burnizko pilota lekuarekin.

Petribefo, aintziñan omen aundikoa, inguruguzietako sorgin biltokia bai-zan.

Aien *Schwarzwald*, ta gure *Oianbeltzak* ez dute antzik izenez bakarik. Alkafen artean beste kidetasun batzuek arki ditzazkigu. Toki izenak, basoen lodia; etxeen galufako, jantziako, lagintzak, ta egual-

diaren giroa. *Artze-ibaf* emen ta *Bären tal* an; *Feldberg* ta *Eiaramendi*, *Neustadt* ta Iribefi. *Schwarzwald*'en gure Irati'n bezela zuaite enbořak ugoldetan kafaizen dituzte. *Flösserie* ta *Almaditza* gauza berdiřa.

Hauenstein Alemani guziko eřirik txikiena ta gure Abaurea, Arike edo Itzaltzu alatsu.

Schwarzwald ta *Oianbeltzean* basoa nagusi; ta bedi anitz urtez. Basoa eřenta bai da. Zuaitez luřa eutsi arazten dute aitz sořa atzeraturik. Basoak eluřen urtutzea neurtzen dute, iturri ta eřekak beti berdin gizen-duaz. Basoen etekiřak, geřa auřetik-Baden'en bakařik urteko 20 miloi markotik gora jotzen omen ziran. ¡Zaindu itzagun basoak ta batez ere gure *Oianbeltza*. ¡Basoa iřaurkiřa bai-da!

«Basoaren edeřa
aizean dubil orbela».

* * *

1924'gafen urteko udaran zan. Ene adiskide min batekin ba-ninjoan oñez Aezkoa'tik bafena, eguzkiruntz. Bazkalondo bero batez Auritz'etik irtenak giřan ta uřatzez-uřatz atzean utzi genitun, Gařalda, Uribe, Irati ibaia. Auntzago Garaioa. Efi ontako arkenengo etxeak gibeleratu orduko, uste gabeen deadar zofotz ta lafi batzuek burua itzul arazten digute. Laister ikusi genuen kařaxi aiek emakumezko batengandik zetozela.

Deiak ziran ta ufuti oraindik emakumezko bat guregana bezela zetofen, zapitxo zuri bat astindurik ta zerbait otsegiřaz. Beriala deadařa garbi entzun ta adi genion: *¿Sind Sie Deutsche? ¿Alemanak al xerate?* Guk baietz erantzun. ¡Ya, ya! Jolasa nai! Neskatxa eder bat, apika *Gretchen-zala* ezagutzeko diřa bertaratu kitzaigun.

Berak befiz alemanak ez giřala antza eman zion. Alkařizketa labur bat izan genuen, aitzeki bikařa bai zan gelditzeko. ¡Bertan goxo! Bařan Otxagabi'ra eldu beařak giřan ganerako.

Otsegin genion alemantxoari gurekin etofri zedin. ¡Diosalak! *Auf drierder sehen!* Obe, bestela *lagun elestari bideko zamari*. Bidea gure nagusi.

Bide luze batean joan beařak giřuzun. ¡Bideari, bada, lotu gintzaion! Ta onela laguntzoxa utzita Otxagabi'ra iritxi al izan giřan ařatz artan.

Gauř gertaera artaz oroitzen naiz ta *Schwarzwald* ta *Oianbeltzari* buruz mintzatzen ari geran ezkerre Garaioa'ko andereřo alemana oripatzea otu zait ta bide batez emendixek ongi naiez agurtzea gure Eřian ibili izan

diran ta befi eman duten *doixtar* jatofak Von Harf, Olite'ko aleman ibil-kari ez ezaguna, Humbolt aundia, antziñan; ta gaur dan egunean Haus Roselieb («Spanische Wanderungen») Peter Panter (Pyrenaeen Buch) ta gure Baer euskaltzale jakintsua alemana ta legazpiafa.

Ofeaga ta St. Blazien

Ofeaga'ren izena (Roncesvalles) Europa'ko kristau efi guzietan ospatsua izan zan. Aldi batean abade-etxe altsuenetakoa bezela jotzen dute kondairagileak. Ondasun mota guzietarik ba-zituan; etxe, efi, mendi, abere baso ta ufetan. Nagusitza ikaragafia Euskal-Efian ta Efbestean. Ofeaga'ko Abad jauna Efoma'ko Aita Santua'rengana zijoanean soñeko morez jantzia, zaldi gañean, ez omen zuan ostatu beafik bidean, Prantzi'n ta Itali'n gauero lo egiteko maizter-etxeren bat ba-zuan; ta nun nai efaztun edefean mun egiten zioten mofoiak...

Ofeaga'ren oroimena ez da aztu, batez ere, bertan gertaturiko Karlo Magno'ren ondamena izan zala-ta.

Altobizkar'ko guda ifintziak ta Efoldan gizajoaren negaf-antziak guregana eldu dira. Egun artan Oianbeltzeko efekak gofitu ziran, geroztik askotan befiz giza odolez gofitu diran antzera.

Tamalez ez zan ta ez da izan Ofeaga ain apaitua jakintzan. Ta euskal jakintzan gutxiago.

Beste zenbait Monasterio bezela izan zitekean Ofeaga euskal jakituriaren itufia ta bultza-bidea. Onela St. Blazien ta Beuron Schwarzwald'en ta Montsefat Catalunya'n. Oso bestalde, motz zearo geldi ziran Euskal-Efiko lekaide-etxeak.

Auferantzean ¿bizkoftuko ote dira? Ori izanen da gure garaipena, sakonagoa Karlomagno'ren aurka Ofeaga'koa baño.

* * *

Iruña Oianbeltz'etik gertu dago Freiburg Schwarzwald'etik bezela. Biak dute ez oso ufun ibai edef bana. Ebro bata, Rhin bestea. Au ipaferuntz dijoa, ura egoaldera. Iruña antziñan iri aundi ta ospatsua izan zan. Efesuma aberatz ta indaftsu baten iri burua. Etorkizunak, çzer ote dio estaltzen?

Freiburg'ek 10.000 biztanle besterik ez zituan 1812'g. urtean; 19.000

biztanle 1864 gañean; 60.000 gizaldi onen asieran ta 88.000, 1920 gañen urtean. ¡Iruña, Iruña Napaño'ko efi nagusia atzera geldi aiz!

Freiburg'ek Unibersidadea du 5.000 ikasleekin, ta Herder liburu etxe otsaundikoa. Iruña'k zezenketa gaitzak. Ebro ibaia egoaldera dijoa ta Rhin ipaferuntz.

Iruña ta Napaño euskal abeñtzaletasunak gora jaso ditzake, Oianbeltz'eko bideak.

* * *

Gure Oianbeltz'etik zeaf bideak beaf ditugu. Belate'tik Efonkari'ko Añako'raño bide zuzen ta zabal bat bederik Kantauri itsasoa ta Auñemendi alkartuko dituana. Napaño'ko Aldundiak, ¿ez al da onela Iruxo aldun jauna? nun lan egin badu. Schwarzwald'en eñu ta zulo estuenetatik bideak dijoaz. Hörden deritzan lekuan, afkaitz tartea guzia idakia dago:

1785

Ex rupe fracta

Haec via facta

(Arkaitz auek txikitu ta bidea egin)

1869

Aetate peracta

Haec ferrea tracta

(Geroxeago ekin beñiro ta burnibidea)

Ori bera gure eredua bedi. XX'gañen gizaldiak Oianbeltz'eko bideak ugarituko ote ditu ta apika ezagutuko ote du burnibidea.

* * *

Gizon arotz ta aundiki bati zoñ diogu omen ta gorasafea: Luziano Bonaparte printzeari. ¡Ba'zekizkien aretxek Oianbeltz'eko bideak! Inor gutxi ikazkin ta mandazainak ezik toki aietan zebilen garaiean, 1850 g. urtean Bonaparte printzeak, Euskal-Eñiko ingurumai aiek arakatu zituan.

Napoleon aundiaren jatoñikoa *korsoa*, korsotañ odolak Luziano printzea euskal gauzetara makurtu zuan. ¿Korsotañ ta euskotañ alkafen arteko aidetasuna? Esango nuke. ¿Izadi aren ezkutapena? Dina dala aundiki arek euskera ta euskaldunak maite izan zituan. Geok euskera aintzakotzat añtu bañan len Bonaparte printzeak amaika lan euskeraregatiñ añtu zuan. Ta



Arte — Bilbao

(Fot. Ojanguren)

Iratiko-mendiyan



1000 ft. (300 m.)

1000 ft. (300 m.)

1000 ft. (300 m.)

zegen ondamenetik jasotzen saiatu zan, zenbait liburu bere sakeletik egin ta argitaraziaz.

Duvoisin kapitaina, azpañendafa, ta Ituríaga Ernani'ko semea artu zituan lankidetzat.

¡Aren ibilaldiak Zubero, Saraitzu, Benapafo ta Eronkari zeaf! Apai-gafienetakoa Atafatz'etik Otxagabi'ra Intxauspe apez ospatsuarekin egin zituan joan etofiak.

Beraz ez legoke ain oker, bidezkoa deritzait Bonaparte printzearen alde, euskaldunak zerbait asmatzea. Ta beste gauzen artean antzirudi ala afi bat oroigaritzat jafi bear litzaioke. ¿Nun berari dagokion leku galen ta erpiñagorik Lafañeko lepoa, Ori mendiko bortua baño?

Ori'ko txoria

Ori'n laket

Ta Bonaparte printzea Ori-pean ibili oi zan pozenik. Bere gogoko lekua bai zan Euskal-Efi guziari begira.

Eusko Ikaskuntza'k ala Eusko Mendigoizale Batza'k ¿zergatik ez? artuko ote dute erabakia.

Gaurkoz amaitzera noa Oianbeltz ta Schwarzwald'eren arteko leia. Ori egin ez dedalarik asi besterik.

Urtero, ez dakit udabefiz ala udaz. Kenez baso biak alkafi, pago-uso andanen bidez mezua igortzen diote. ¿Maite agura ala? Norbaitek nik baño bizkoñagorik, inoiz esango al dizu-irakurle jakingura ori-zerik ote dan.

L. Ayanbe.

